

Zerbitzaren Menduurrena

Mintzaitetan eskuara omen da lehen: dena den, eskuara da segur ederrena.

Uste hori itsatsirik birkortu zen Jean Elisalde azkaindarra, euskal idazle bezala Zerbitzari izenordez ezagutu genuena. Uztartizan, Liginagan eta Mendiondon erretoe izanak, asken Gereziatan igoroko zituen bere urteak apez euskaltzale suharrak.

1931. urtean euskaltzain sarrerako hitzaldian erakunde horri gazetetasuna zerkarkion gizon hura, nik aski zahartua ezagutu nuen Azkainen bertan Mixel Labegeri adizkide zenak aurkeztu ninduen. Orduen ere bere gogoak eta amesak euskararen alde zituen, sarrerako hartan erabili zuen ideia berakin: "Euskararen alde nahi ditut azken plurimario nere ahal guziki, nere indar guziki hitagut".

Lanik anitz egin zuten euskaraz eta euskararen alde, baina askozaz gehiago eginen zuten euskaraz gainera ihiza eta pilota hain maite izan ez balitu, bere adizkide min eta euskaltzainkide zen Louis Dassance zenarekin hortan ematen bai zuten denborarik anitz.

Pilota jokoa non, Zerbitzari han; hego-haizea somateaz ihizara bezala. Ez zen ez geldirik egoteko gizona. Baizik, ibilkioa, urduria. Azkaindaren bati inork galdetzen bazion: "Zer moduz Zerbitzari?". Haren erantzuna omen zen: "Ba, badabil". Eta, "badabil"ek gutitan izan omen da taxu hobean erabiltzerik.

Iazkera hortaz bere alde onak zituen gizon alia eta bati zernaharriako prest herriko po-

puluaren zerbitzari. Horregatik, ondo zetor- kion bere izenordea. Baina, esan beharra dago bere idazkietan Zerbitzari izenordeaz gainera: Lurtchuri, Bilhari, eta Hiazbelar izen- ordeak ere erabili zituela, bere idazkian Euskalduna, Euskera, Gure Herria, Euzkadi eta beste zenbait - publikazioetan argitaratu ematean. Lanik gehienak mugazandiko Gure Herri aldizkarian argitaratu zituen. Ipuiak, alegiak, antzerkitxoaren bat, artikuluak eta zenbait liburuxka. Artikuletarik asko pilotari buruzkoak.

Horrez gainera landare eta lore bilketak eta baita erretra bilduma bat ere: *Atsotiz, zuhur-hitz eta erren-zahar* (1936). Lapurdin bere egunetan ahoz aho jasok. Bere ueste: "Primadera baxotxan lore berriak sortzen diren bezala, atsotiz eta zuhur-hitz berriak agertzen dire urhetik urherat edo noizetik noizterat. Ez dire lehengoak baino gehiago galtzerat utzi behar. Bertalde lehengoek berek abotik ahorat joanez, jauntzi berri bat hartu dute. Beren jauntzi berriak agertu nahi ditugu. Zuzen da naski...". Lan polita bere.

Guk Oihenarten *Atsotizak eta neurritzak* deritzan bilduman (1971ean Larresorkor prestatu zuten edizioan), 66. erretrauran honako hau irakutzen dugularik: "Baigorriin baxera lurrez, nik haragai nuenean urrez", *Zerbitzari*ren bilduman jatorrago irakur genezake, 116.erretraura begiritzen badugu: "Baigorriin baxera urrez, nik harat orduko lurrez". Eta,

hala behar, urrutiko inxtaurren gisako esaldia denez.

Lan horiez gainera beste zenbait liburux- karen egilea genuen Zerbitzari zena. *Xantori berria*, 1920. urtean argitaratu; *Ama Maria pasionekoa*, 1930ean Baionan argitaratu; 1943an ordea, Lille-n argitaratu zuten *Ichtorio Saindua*, Testamendu Zaharra. Jesukristo eta Eliza hartzen zituen; horiez gainera beste lan tipi batzuk, *Katixima*, *San Franses eta Bahar deitu salbaita*. Honaki zituen antzerki- ak ordea, beste honako hauek ziren: *Gaxuxa*, *Mikolas*, *Bi gogorrak* eta *Oltzaberrian*.

Luzaroen berak eraman zuten Eskualduna zeritzan aldizkarian *Zer eta Zer* deitu saila. Bere adizkide mina zen Louis Dassance- rekin elkar lanean eman zuten *Errebote jokoa*, gehienetan onartuak ziren legeak bilduz epai- ketarako oinarriak jartzeko. Baita ere, Dassance zenarekin Euskal Herriko egazi eta txorien inenan bilduma Gure Herria aldizka- riaren zenbait zenbakitan 1923tik 1926ra bi- tartean.

Gereziatan anitz urtean erretoe izanik, han bertan pausatara etze, maitatua eta bertako- tzat hartua izanarren, Georges Lacombe euskaltzain sarrerakoa egin zion iharde- pean ongi zion bezala, bere bertsoa oroitari- ziz:

**Azkaingo herrian dut nik nere etxea,
Xoko poltit batean umilki gordea.
Errege urus bada bere jauregian**

Ez naiz urrikartzeko etxetto trikian.
Juan SAN MARTIN

El presente año se cumple el centenario nacimiento del arcaidarrá Juan Elisalde "Zerbitzari", quien en vida fue un personaje muy activo, tal vez más que en las letras de oficio a la pelota, quien en compañía de inseparable amigo Louis Dassance se dedicó a la recopilación de las distintas reglas de juego en el juego de rebote para establecer ley definitiva en la especialidad. También recopiló parte de sus actividades a la recopilación de nombres de las plantas y en colaboración con Dassance hizo un extenso trabajo de aves. Durante largo tiempo se ocupó de la publicación *Zer eta Zer* en la publicación *Eskualduna*. Escribió cuatro piezas teatrales y un libro *Kantari berria* y un refranero. Su obra se encuentra bastante desperdigada en diversas publicaciones, principalmente en *Eskualduna*, *Euskera*, *Gure Herria*, *Euzkadi*, etc., además de los aludidos géneros escríbidos cuentos, fábulas y numerosos artículos.

Era natural de Ascain, cursó sus estudios en Ustaritz y Bayona y fue párroco de Ustaritz, Laguige (Liginaga), Mendiondo y Gerezieta (Gerezieta). En 1921 fue nombrado secretario de la entidad Euskaltzaleen Biltzarra y en 1930 académico de número de Euskaltzaleen Biltzarra. Falleció el mes de mayo de 1961, a la edad de 78 años, en Gerezieta.

Aita Madinaren "Arantzazu" diskan

Gorputzi bezperan bi musika ekintza adierazgarri izan ditugu Gipuzkoan: bata Errenteriako Euskal Musikaren Plaza zabaltzea eta bestea Oinatin Aita Madinaren *Arantzazu* Poema Sinfonikoaren diska aurkeztea. Ekintza biak oso garrantzitsuak gure musikaren historia- rako bakoitzak bere neurrian irakzin luze bat merezi dutelako. Bietan parte hartu izan behar nuen, baina Errenteri- a gustora joateko prest egon banitzan ere, bigarreneko jo behar izan nuen diska- ren aurkezpenean partaide nintzelako.

Ez da ugaria gure euskal musikaren diskografia eta, behar bada, musika sinfonikoarena askoz ere urriagoa. Kultura arduradunek badute hemen zeregirik eta zuri zuzen dituz, Jose Mari Velez de Mendizabal adiskidea, iradokizun hau.

"Herri herti" ko musika eraketak oso ondo daude, baina entzulegoa, jakina, oso mugatua da. Badaude beste bide batzuk herrian — eta munduan zehar ezango nuke — gure musika, herrikoia edo landua, adieraztera emateko: diskak, kasetak, videoak. Herriatiko elkarteak izaten dira gehienetan, ahalegin garetzie- kin, grabaketak egiten arduratzen direnak. Baditugu koralak, baditugu orga- noak eta organulariak, baditugu orkestra. Zer da, berz, falta zaiguna? Ofizialki grabaketak egiteko plangintza bat. Gure Kultur Sailak eginkizun honetan parte hartu beharko luke, Euskal Herri- ari daukan musika aberastasuna diska- tan zabaltzeko, lan hau planifikatu eta finantziatuz.

Ekainaren leian Oinatin Unibertsita- tean aurkeztu zen diska Aita Franzisko Madina (1907-1972) musikagilearen *Arantzazu* Poema Sinfonikoa dakarkigu, Oinati eta Elgoibarko Koralek, "Ciudad de Barcelona" orkestrak eta Juan Karlos Irizar zuzendariak grabatua. 1956an, Arantzazuko Basilika berriaren zabaltzea ospatzeko, Literatur eta Musika Lehiaketa bat eratu zen. Musikari dagokionez, sari bi sortu ziren, bata Poema Sinfoniko bat eta bestea Meza bat sariztatze.

Bost Poema eta 18 Meza aurkeztu ziren Lehiaketara. Lehenengo sailaren saria emateko, hots, Poema Sinfonikoa, Irailaren 17an bildu ziren Donostiako Ertzi Musiketxean Epai-mahaiko hauek:

Norberto Almandoz, Jesus Aranbarri eta Estanislao Sodupe. Erabakia hau izan zen: Lehen saria Franzisko Escudero jaunari *Arantzazu* Poema Sinfonikoagatik.

Bigarren saririk egon ez arren, gomenda- tzen zuten beste sari bat sortzea Arturo Duo Vital jaunaren *Benedicta* Poema Sinfonikoa sariztatze. Eta azkenez, onak zirelako, zalantzarik gabe, "ohorezko aipamena" egiten zien Juraduko Jose Maria Gonzalez Bastidaren Poema Sinfonikoari eta Aita Madinaren *Arantzazu*-ri.

Saririk gabe geratu zen gure Aita Ma- dina baina saririk handiena lortu zuen ikusiaz bere musikalan hori jendaurrean lehenengo aurkeztu zela, hots, 1957.eko Urriaren 5an, Oinatin San Migel Eli- zan, Nik esango nuke Poema honek ez zuela saririk lortu egileak entzule izango zen herria gogoan izan zuelako eta ez Epai-mahaia. Lanean hasi zenean New York-eko Albanyn, herriarentzat uler- gaia izango zen musikalan bat egingo zuela aitortu zuen. Eta hala suertatu zen.

Geroztik beste bi aldiz aurkeztua izan da Poema hau Oinatin, 1973an eta 1979an. Orain diskan entzuteko aukera dugu eta eskergarria da benetan Oinatinoko bur- tutza duten ahalegina, herriko seme bati omenaldi hau egiaz.

1949 argitaratu zuten Aita Salbator Mixtelenak Arantzazun bere liburu eder hau: *Arantzazu-Euskal sinismenaren poema*. Hori izan zen hain zuzen Aita Madinak xurgatu zuen iturria bere poem- enaren testoa osatzeko. Horregatik esa- ten zuten musikagileak poemak txoko usaina zeukala. Baina hori izan zen, beste arrazoi batzuen artean, saria ez irabazteko arrazoi: una haretan, herriaren- tzat ulergarri egitearen, ez zituela mo- mentuko teknikak erabili. Ganera, San Inazio 1522 Arantzazura egindako erro- mensea zen —oinarriak eskatzen zuten— Poema Sinfonikoaren ari, eta Aita Ma- dinak bere lanak dituen hamabi ataleta- tik ez zion bat baizik behartuko gai honi zuzendu. Salbator Mixtelenaren poema ederrak itsutu zuen gure musika eta Arantzazuko Ama Birjinaren Agerkun- dea, San Inazoren osteria baino, "leit- motiv" hobea zela iruditu zaion, bere

kaltetan, musikagileari. Baina Epai-ma- haikoentzat ez bazuén burutu bere lana, herriaren sentimentua bai ikutu zuela esan beharko.

Mezen lehiaketara ere aurkeztu zuen Aita Madinak "Missa in honorem Virgi- nis de Arantzazu", lau ahotz eta organu- rako egina. Mezen saria emateko Epai- mahaia osatzen zuten Jesus Guridi, Luis Urteaga, Victor Zubizarreta eta Leo- nardo Zelaia jaunek; Donostian bildu ziren Urriaren 7an eta Tomas Garbizuri eta Tomas Araguezi saria banatuta emate- a erabaki zuten. Hemen ere Aita Ma- dinak ez zuen saririk lortu baina berak aurkeztutako Meza izan zen denetarik lehenengo abestia izan zena, Arantzazu Basilika berriari, 1957.eko Bepiz- kunde igandean. Ikusten dugunez Epai- mahaikoaren aurka jokatu zuen herriak bi kasuetan eta hau da Aita Madinari da- gokion ohorea.

José Antonio ARANA MARTIJA

Los acontecimientos significativos se han celebrado la víspera de Corpus en Guipúzcoa. En Rentería la inauguración de la Plaza de la Música Vasca, como colofón diríamos ahora de la importante Semana Musical que anualmente allí se organiza, y la presentación del disco en que las Corales de Oñate y Elgoibar, la Orquesta "Ciudad de Barcelona" y el Director Juan Carlos Irizar han grabado el Poema Sinfónico *Arantzazudel Padre Francisco Madina*. Al no poder estar en ambos sitios a la vez, hube de elegir el acto de Oñate en que tomé parte.

Las grabaciones de nuestra música vasca, tanto popular como culta, no son abundantes y menos aún las de nuestra música sinfónica. Sin embargo, nuestra riqueza musical es grande y tenemos coros, órganos y organistas y aun orquestas que podrían acometer con dignidad un programa de grabaciones que extendieran su conocimiento. Haría solamente falta que los responsables de nuestra cultura planificaran y subvencionaran este trabajo de grabación. Puesto que es posible, espero no se tarde mucho en iniciar la planificación.

Pero vayamos al hilo del asunto. El Padre Francisco Madina compuso este Poema Sinfónico en 1956 para presentarlo

al certamen convocado en Arantzazu con motivo de la inauguración de la nueva basílica. Como el mismo confesaba en un momento se puso a trabajar en el Poema, pero hacer algo que entendiera el pueblo, algo de modernismos estridentes. Y lo hizo con un lenguaje melódico, armónico y orgánico, sencillo que gustó y gusta que, por lo tanto al oírte medio pero que, como se convenció al Jurado formado por Almandoz, Aranbarri y Sodupe. Estos compositores ganaron el primer premio al Poema de Francisco Escudero y un "accesit" al que habrían presentado Arturo Duo Vital. Los compositores de Madina y de José María González Bastida merecieron solamente "mención honorífica".

Sin embargo, fue el Poema de Madina el primero que se interpretó en 1957 por la Coral de Oñate y la Orquesta Sinfónica de Bilbao bajo la dirección de Ramón Muñoz. Este Poema ha sido interpretado otras dos veces en Oñate en 1973 y 1974. Y ahora se nos ofrece en disco que, con toda la calidad y el amor de sus autores y sus intérpretes. Los Poemas Sinfónicos premiados fueron estrenados en Barcelona el de Escudero en 1959 y en Madrid el de Duo Vital en 1960.

El Padre Madina concursó también premio de Misas. El Jurado compuesto por Guridi, Luis Urteaga, Zubizarreta y Celaya otorgó un segundo premio al Poema declarando el primero desierto a las Misiones presentadas por Tomás Garbizuri y Tomás Araguezi (padre). El Padre Madina ganó tampoco obtuvo aquí premio vio sin embargo con alegría que de las 18 misas presentadas a concurso fue la suya la premiada que se estrenó en la nueva Basílica de Arantzazu el día de Pascua de Resurrección de 1957. Una gran satisfacción para él, verdad para quien más que para un ganador había compuesto sus obras con una vista fija en el pueblo que las iba a interpretar. Satisfacción y honor en el onatiarra Francisco Madina Igarzabal.

Y puesto que el Padre Madina ya había lo que le correspondía, nuestra felicitación ahora a los que han hecho posible que su música llegue hasta la comodidad de nuestra casa.